BC3-KO LIZITAZIO ELEKTRONIKORAKO JARRAIBIDEAK

BC3 BASQUE CENTRE FOR CLIMATE CHANGE – KLIMA ALDAKETA IKERGAI izeneko ikerketa-zentroa irabazi-asmorik gabeko elkarte bat da.

Sektore Publikoko Kontratuei buruzko 9/2017 Legeak (zeinak Espainiako ordenamendu juridikora aldatzen baititu Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/UE eta 2014/24/UE direktibak) bere 3.1.k artikuluan ezartzen duenaren arabera, BC3 BASQUE CENTRE FOR CLIMATE CHANGE – KLIMA ALDAKETA IKERGAI ikerketa-zentroak (aurrerantzean, BC3) ahalmena du Administrazio Publikoa ez den erakunde adjudikatzaile izateko, eta, horren ondorioz, araudi hori bete behar du kontratazio-jarduera guztietan.

BC3 BASQUE CENTRE FOR CLIMATE CHANGE – KLIMA ALDAKETA IKERGAI zentroaren Kontratatzailearen profilean ikus daiteke Sektore Publikoko Kontratuen 9/2017 Legeak eta gardentasunaren arloan indarrean dagoen araudiak eskatzen duten informazio guztia. Aipatutako profil hori Kontratazio Publikoa Euskadin Plataforman integratuta dago ere bai.

https://www.contratacion.euskadi.eus/w32-kpeperfi/eu/contenidos/poder_adjudicador/poder290/eu_doc/eu_arch_poder290.html?ruta=/w32-kpeperfi/eu/v79aWar/comunJSP/v79aSubmitFiltroPoderAdj.do

a) Lizitatutako espediente guztien informazio Publikoa

Lizitazio guztien zerrenda –irekita, tramitatzen zein itxita daudenak– BC3ren webguneko atarian ikus daiteke, Kontratatzailearen Profila atalean. BC3-k, halaber, kontratazio-espediente bakoitzarekin zerikusia duen informazio guztia argitaratzen du Kontratazio Publikoa Euskadin Plataforman.

b) Eskaintza telematikoen aurkezpena

BC3k kontratazio elektronikorako **"eFundanet"** plataforma, hau da, BC3aren **KONTRATAZIO PLATAFORMA**, erabili ohi du hornigaiak eskuratzeko, zerbitzuak eskaintzeko edo obrak kontratatzeko, sortzen zaizkion beharrei jarraikiz. BC3k argitaratzen dituen eskaintzetan interesa duen edonork plataforma horretara jo dezake, eskaintzei buruzko informazioa lortzeko, izena emateko edo behar den dokumentazioa aurkezteko.

"eFundanet" plataforma kontratazio elektronikorako plataforma bat da, BC3rentzat diseinatua, eta Ogasun Ministerioaren Kontratazio Elektronikoa Koordinatzeko Zuzendariordetza Nagusiak homologatua.

Dokumentu hau eskuragarri dago BC3ren webgunean, kontratatzailearen profilaren orrian (https://www.bc3research.org/kontratatzailearen_profila), eta bertan kontsultatu daiteke kontratazio elektronikoari buruzko informazio guztia.

BC3k irekita dituen lizitazio elektronikoetan parte hartzeko, hau da eskeintza bat bidaltzeko, eta espediente elektronikoak kontsultatzeko, erabiltzaileak erregistratu egin behar du lehenik BC3aren KONTRATAZIO PLATAFORMA horretan. Eskatzen zaizkion identifikazio-datuak bete beharko ditu, harremanetarako pertsonarenak eta sartzeko gakoak barne, dokumentuan azalduko den bezala.



"Aurkeztu zure eskaintza" ikonoan edo ezkerreko menuko aukeran klik egitean, erregistroa egiteko orrialdera iritsiko zara. Dagoeneko erregistratuta bazaude eta erabiltzailea bazara, orri horretan duzu saioa hasteko aukera.

(https://bc3.fundanetsuite.com/efundanet/identificacion/identificacionfrw.aspx?returnurl=%2fefundanet%2fbienvenidafrw.aspx)



Erregistratzeko, hemen eman behar da alta:

(https://bc3.fundanetsuite.com/efundanet/Registro/RegistroUsuariosFrw.aspx)

BC3ren Kontratazio Plataforma alta ematerakoan, pantaila hau agertuko zaizu:



Datuak behar bezala erregistratu ondoren, egiaztapen-pantaila bat agertuko zaizu.

Gero, mezu elektroniko bat iritsiko zaizu Kontratazio Plataforma ondo erregistratu zarela baieztatuko dizuna.

Mezua iritsitakoan, aukera izango **duzu BC3aren "eFundanet" Kontratazio Plataforman** sartzeko**.**

Plataforman, **eskaintzen** menu bat agertzen da, bi aukera hauekin:

- **Eskain daitezkeen espedienteak**: Eskaintzak aurkezteko irekita dauden kontratazio-espedienteak dira. Espediente bakoitzean, oinarrizko informazioa eskuratu daiteke, hala nola erlazionatutako dokumentazioa (baldintzak, kontratazio-

mahaien osaera, gutun-azalak irekitzea, balorazioak, esleipenak, kontratuen formalizazioak, etab.).

- **Eskainitako espedienteak**: Hornitzaileak dagoeneko eskaintza bat egin duen kontratazio-espedienteak dira. Espediente bakoitzean, oinarrizko datu batzuk kontsultatu ahal izango dira, hala nola aurkeztu izanaren agiria eta erlazionatutako dokumentazioa. Ezin izango da kontsultatu, hala ere, aurkeztutako dokumentaziorik.

b.1) ESKAIN DAITEZKEEN ESPEDIENTEAK

Kontratazio Plataforma, eskaintzak aurkezteko moduan dauden espedienteek bi data dituzte: plataforman noiz argitaratu diren, eta eskaintzak aurkezteko azken eguna eta ordua noiz den. Horrez gain, oraindik esleitu gabe dauden eta gutun-azalen bat ireki gabe duten espedienteak ere ageri dira.



Eskaintza aurkezteko prozedurari ekiteko, "**Aurkeztu eskaintza**" botoia sakatu behar da. Ondoren, egituratuta agertzen da zer gutun-azal aurkeztu behar diren eta zer dokumentazio aurkeztu behar den kasu bakoitzean. BC3K lizitatzeko espediente bakoitza konfiguratuko du, aurkeztu beharreko gutun-azalak eta informazio sisteman gorde aurretik aplikatuko den kodetze-irizpidea zehaztuta. Lizitazio bateko dokumentazioa telematikoki aurkezteko, irekita dauden lizitazioen zerrendara sartu eta, gero, nahi den espedientean sartu behar da. Sistemak erakutsiko du bete behar diren gutun-azalak. Gutun-azal bakoitzean, sartu nahi diren dokumentuak erantsiko dira, agertzen diren jarraibideak betez eta pleguetan esaten dena jarraituz. Gutun-azal guztiak bete dituzten eskaintzak eta entregarako ezarritako muga-eguna bete aurretik aurkezten direnak bakarrik onartuko dira.

Kontuz: dokumentu bakoitza ezin da **4 MB** baino handiagoa izan. Dokumentuak PDF izan behar dira, eta Lizitazio bakoitzeko pleguetan zehazten dan informazioa soilik igo beharko da gutun-azal bakoitzean.

Gutun-azalei barne-lakratu bat jartzen die automatikoki kontratazio-plataformak berak. Gutun-azal horiek dagokien datan desenkriptatuko dira irekiera-ekitaldirako.

Lizitatzaileak eskatu zaion dokumentazioa erantsi ahal izango du, eta, prozesua amaitzeko, "**Berretsi Eskaintza**" botoia sakatu beharko du.

Oso garrantzitsua da mugaeguna eta ordua baino lehen konfirmatzea eskaintza; bestela, ezin izango da aurkezpen-prozesua amaitu.

Eskaintza konfirmatutakoan, eskaintza aurkeztu izanaren gordekina emango da.

Oso garrantzitsua da eskaintza aurkeztu izanaren gordekin hori gordetzea, proposamen horrekin arazorik sortuko balitz ere.

Gutun-azal bakoitzean sartutako dokumentu guztiak kodetuta (lakratuta) gordeko dira informazio-sisteman, eta desenkriptatu egingo dira kontratazio-mahaien ekitaldian irakurri ahal izateko. Gutun-azal bakoitza modu independentean desenkriptatuko daiteke.

b.2) ESKAINITAKO ESPEDIENTEAK

"eFundanet" Kontratazio Plataformaren bidez aurkeztu diren eskaintzen espedienteetan, kontratazio-prozeduran eskaintza bat aurkeztu duten hornitzaileak sartu ahal izango dira.

Espediente bakoitzean, oinarrizko datu batzuk kontsultatzeko aukera izango da, hala nola eskaintza aurkeztu izanaren agiria eta erlazionatutako dokumentazioa, baina ezin izango da kontsultatu aurkeztutako dokumentazioa.

Erregistratzeko orduan zalantzarik baduzu edo erregistratu ondoren eskaintza aurkezteko edo zure espedienteak kontsultatzeko zalantzarik baduzu, bidali mezu elektroniko bat helbide honetara: procurement@bc3research.org

c) Nola eskuratu informazio gehigarria lizitazio baterako irekita dagoen espediente bati buruz ala nola harpidetu espediente zehatz bati buruz argitaratzen den informazioa jasotzeko

Irekita dagoen lizitazio bakoitzean, interesa duen hirugarren pertsona batek nahi dituen galderak egin ditzake modu telematikoan. Erantzun guztiak publikoki agertuko dira. Ez da beharrezkoa erregistratzea galderak egiteko. Harpidetzea ere posiblea izango da, horrela espediente zehatz bati buruz argitaratzen den informazioa jasoko da.

Horretarako, BC3aren Kontratatzaile Perfilean dagoen ezkerreko menuko "Espedienteak kontsultatu" aukera sakatu ala "Espedienteak kontsultatu" irudiaren gainean klikatu.

Behin aukera hori sakatuta hurrengo pantaila agertuko da:



Hemendik hurrengo aukerak daude:

1. Kontratazio Jarraibideak kontsultatu



2. Irekita dauden lizitazioak kontsultatu



3. Itxita dauden lizitazioak kontsultatu (eFundanet-en bitartez kudeatutakoak)



Irekita dagoen lizitazio bakoitzean galderak egiteko, edozein hirugarrengok, lehenengo, interesa duen lizitazioa aukeratu beharko du (Adibidez: "Ejemplo para eFundanet" lizitazioa):



Gero, behin lizitazioa aukeratuta, lizitazioaren informazioa agertuko da:



Pantaila honetatik, hirugarrenak nahi duen galdera telematikoki bidali dezake "**Galderak eta erantzunak**" aukera sakatuta. Erantzun guztiak publikoki agertuko dira.



Bestalde, aukeratutako lizitazioan "**Izena eman**" aukeratik edozein hirugarrengok, lizitazio horretara harpidetu daiteke. Era horretan espediente zehatz horri buruz argitaratzen den informazioa jasoko da hirugarrengoak sartzen duen e-mail helbidean.



c) Espediente historikoak

BC3ko KONTRATAZIO PLATAFORMAren bitartez kudeatu ez diren espedienteak, "Espediente historikoak" aukeratik ikus daitezke, bai, ezkerreko menuan agertzen den aukeratik zein "Espediente historikoak" deritzon iruditik:



Behin aukera hori sakatuta, espediente historikoen zerrenda agertuko da: